

XV. Nazioarteko kongresua EMAKUMEEN MUNDUAK 2026

Emakumeak eta bakeak*



GAI-ILDOAK

Sekuritzazioa eta gerren baketze militarizatua areagotzen ari den mundu-mailako testuinguruan ospatuko da "Emakumeen Munduak" nazioarteko kongresuaren XV. edizioa, Emakumeak* eta Bakeak hizpide. Bi hitzak pluralean. Alde batetik, emakumeen aniztasuna interseksionalitate osoan islatzeko, eta *-ren bidez, sexu eta genero aniztasun eta identitateak biltzeko. Bestalde, bakeak, pluralean, bakea indarkeria ezetik at eta modu zabalagoan ulertzea gonbidatzen duen kontzeptua. Bizitza eta elkarrekin bizi garen lekua zaintzea lehenesten duten beste egiteko modu batzuk proposatzen ditu.

Aniztasunari buruzko topaketa eta elkarrengandik ikasteko gunea izan nahi du kongresu honek. Zentzu horretan, jarraian deskribatzen ditugun zortzi gaiak parte-hartzaile guztien sormenerako abiapuntu dira. Gaiak ez dira hertsiaik; dena lotuta dago. Horregatik, hemen proposatutako gaiez gain, badago aukera gai bakoitza osatu eta aberastuko duten proposamenak egiteko.

1: Desmilitarizazioa, des-sekuritzazioa eta armagabetze globala

Bakea eraikitzeko ohiko ulermena gerra eta gatazka armatuetako testuinguruetan armak isilaraztearekin eta zuzeneko indarkeriak etetearekin lotzen dugu.

Desmilitarizazio fisikoaren (bizitza armatuaren) ikuspegitik, besteak beste, honako emakumeen* eta emakume*-kolektiboen ezagutzak, esperientziak eta praktikak ezagutarazi nahi ditugu:

- bake-prozesuetan aktiboki bitartekari gisa parte hartzen dutenak, bai nazioarte mailan zein nazio eta komunitate mailan;
- armagabetze, desmobilizazio eta birgizartratze prozesuetan (DDR) gerratik bakera igaro diren emakumezko* borrokalariak;
- bake-ekimenak talde armatuekin batera bultzatu dituzten askotariko emakumeen* erakundeak (biktimen kolektiboak, gizarte zibileko erakundeak, ekintza-plataformak, etab.).
- arlo anitzetan eragin politikoa duten kolektibo feministak: armagabetze globala, emakumeen nazioarteko agenda, bakea eta segurtasuna sustatzeko eta militarizazio- eta sekuritzazio-politikak geldiarazteko.

Desmilitarizazio mentalaren barruan, honako ekintza hauek eraisteko proposatzen dituzten ekimen feministetan jarriko da arreta:

- indarkeriaren eta indarkeria sinbolikoen kultura;
- indarkeriaz jarduteko moduak;
- maskulinitate autoritario eta oldarkorrak, lehenengo zein oraingo erregimen patriarkalekiko lotura estuak;
- komunikabideen eta sare sozialen eginkizuna;

Desmilitarizazio ekonomikoaren barruan, gerraren ekonomiak lantzen dituzten prozesu eta ekimen guztiak sartzen dira:

- indarkeria bidegabeak;
- narkotrafikoak, pertsonen eta armen salerosketak ezarritako indarkeriak;
- guerra-testuinguruan emakumeen gorputzak gauza bihurtzearen eta sexu-esklabotzako sistemen egoskortzea;
- arma-industrien eta gerren logistika eta azpiegiturari laguntzeko beste industria batzuen garapena;
- estraktibismo ekosozialak areagotzea.

2: Memoriak eta indarkeriak ez errepikatzeko bermeak

Mahai honetan ezagutzak, praktikak eta esperientziak elkartrukatu nahi ditugu, bi ardatz nagusiren inguruan:

Batetik, *egia, justizia, erreparazioa eta indarkeriak ez errepikatzeko bermeak*, honako arlo hauek kontuan hartuta:

- memoria berreskuratzeko politikak eta esperientziak eta ez errepikatzeko bermeak;
- eragindako kalteen eta minen aintzatespena, erantzukizuna bereganatzeko;
- bakearen aldeko hezkuntza;
- belaunaldien arteko, kulturen arteko, erlijioen eta abarren arteko elkarrizketak sustatzea

Eta bestetik, *bestelako justiziak*: leheneratzaileak, eraldatzaileak, antipunitibistak, konpontzaileak, nola:

- kokaturiko justiziak;
- genealogia feministak: oroimenaren zirkuluak, emakumeen zikloak gure arbasoen oroimen gisa, familia-zikloa, komunitate-zikloa;
- sendatzea, indibiduala zein kolektiboa;
- isiltasunerako eskubidea, norbera eta gainerakoak babesteko;
- elkarrizketa zintzoak izateko eta beldurrik gabe hitz egiteko gune seguruak;
- artea eta oroimena lantzeko, sendatzeko eta zauri irekirik ez uzteko beste modu batzuk.

3: Migrazioak, erbesteratzea eta behartutako lekualdatzeak

Emakumeei*, emakumeen* erakundeei eta kolektibo feministei dei egiten zaie, honako gai hauetan bakearen alde lan egin dezaten:

- gatazka armatuetan, gerretan, klima-aldaketetan edota elkarren arteko loturek eragiten duten lekualdatze behartua, legez kanpoko okupazioa eta desjabetzea;
- migrazio-kateak eta bizitzak eta egunerokotasuna/normaltasuna beste testuinguru batzuetan berreraikitzea;
- gizarte-taldeen arteko bateraezintasun kulturalengatiko gatazka berriak (desplazatuak zein harreragileak), hizkuntzak eta bizimoduak mantentzeko zailtasunak, belaunaldien arteko gatazkak, pobretzea, adituen ihesa;
- erbestetik edota diasporatik bakea eraikitzea.

4: Ondasun komunak

Amankomunean ditugun ondasunei buruzko ezagutzak, praktikak eta esperientziak ezagutarazi nahi ditugu; hau da, guztion bizitzarako ezinbestekoak diren eta bizitza bere forma guztietan ahalbidetzen duten ondasunei buruz mintzatu. Besteak beste, gai hauek balioetsiko dira:

- basoak, urak, zorupeak, airea eta abar mantendu eta birsortzeko kolektibotik, komunitatetik datozen itxaropen-alternatiba inklusiboak;
 - lurraldean bizi diren izaki bizidun eta ez-bizidun guztienganako zaintzak (bizien interdependentziak);
 - ondasun komunen gobernantza botere-asimetriren munduan;
 - lurraldearen pribatizazioaren eta baliabideen muturreko ustiapenaren aurkako erresistentziak;
 - komunitateek ondasun komunetik dituzten eskubideen babesa;
- kapitalismoaren, patriarkatuaren eta ondasun komunaren desjabetzearen arteko loturak.

5: Gorputzak – lurraldeak - bakeak

Gorputzak lurraldeak dira, eta lurraldeak gorputzak. Bakeen aldeko lotura nondik eta nola abiatzen den. Gorputza askatu. Lurraldea askatu. Ondorengo gaiei buruzko hausnarketak, esperientziak eta praktikak bilduko dira:

- lurrak eta lurraldea okupatzeko alternatiba agroekologikoak;
- lurraldeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumo alternatibak;
- demokraziaren eta lurraldean bizi direnen aldeko erabateko errespetuan oinarritutako lurraldeen gobernantza sistemak;
- bakea gorputz eta lurraldeetatik eraikitzea;
- emakumeen* eta gorputz ez-normatiboaren eguneroko segurtasuna eta mugikortasun askea;
- tradizioaren, nortasunaren eta erlijioaren bidezko lurraldeen menderatze patriarkala: emakumeen*, nesken* eta haien plazeraren gorputzen menderatze-, merkantilizazio- eta esplotazio-sistemak osatzen dituztenak;
- nekazaritza intentsiboan oinarritutako elikagai sistemak eta lurra eta lurraldeak suntsitzen dituzten eta gorputzak hiltzen dituzten sistema agrotokikoak.

6: Subiranotasuna eta autonomia

Esparru honetan, emakumeen* eta kolektiboaren ezagutzak, hausnarketak, praktikak eta esperientziak partekatu nahi ditugu, honako ardatzen inguruan:

- komunitateen subiranotasuna eta autonomiaren kudeaketa, desberdintasunez beteriko eta elkarrekiko mendekotasun handiko testuinguru globalean;
- autonomia- eta subiranotasun-kosmobisioak, bai lurraldeenak, bai lurraldeok egituratzen dituzten kulturenak;
- nola egiten zaien aurre eta nola eraikitzen diren autonomia eta subiranotasuna sakrifizio-lurraldeetan: mehtaritza eta nekazaritza intentsiboa, gerra eta gatazka armatuak, ingurumenaren eta ekologiaren degradazio larria, pobretze endemikoa, airearen eta uraren kutsadura...
- burujabetza eta autonomien armagabetzea, gaur egungo kolonialismo mota desberdinak baliatuz: konkista, okupazioa, menderatzea eta esplotazioa;
- eskasia dagoen testuinguruetan autonomiagatiko erresistentziak;

- emakumeen* eginkizuna herrien askapen-borroketan;
- burujabetza eta autonomia eraikitzeke ekonomia-sistema alternatiboak, hala nola emakumeen* ekonomiak, ekonomia feministak, ekonomia solidarioak, ekonomia komunitarioak eta abar;
- elikadura-burujabetza.

7: Zaintza eta egunerokotasuneko bakeak

Bizitzarekin eta bizitzarako zainketa-sareak azpimarratu nahi ditu gai honek, pertsonekin, kolektiboekin eta gainerako izaki bizidun eta ez-bizidunekin zerikusia dutenak.

- zaintza: zer da zaintzea eta zaindua izatea;
- zaintza bizitzako unerik samurrenetan: haurtzarora, zahartzarora, gaixotasunean;
- nekea eta gaixotasun fisiko eta emozionalak zapalkuntzen eta kontrol patriarkalaren adierazpen gisa emakumeen gorputzetan*;
- autozaintzarako zailtasunak;
- autozaintzaren merkantilizazio eta medikalizazioa;
- etxeen eta familien zaintzak emakumeen* betebeharrak gisa;
- erakundeetatik egiten diren zainketak: baliabideak, prozesuak, tresnak;
- zaintzaren egokitzapena, berrantolaketa eta balioespina bizitzako arlo guztietan;
- zaintzarako politika publikoak.

8: Bakearen aldeko metodologia feministak

Feminismoetatik bakeak egiteko moduetan datza gai hau:

- pedagogia, elkarrizketa, hartu-eman eta ekintza estrategia feministak;
- aldaketarako eta eraldaketarako baliabide eta tresna feministak
- bakea eraikitzeke agenda feministak, elkartasun internazionalista aktibotik bideratuta;
- salatzen ditugun indarkeriei aurre egiteko mobilizazio, artikulazio eta antolaketa estrategiak;
- idatzizkotik edo ahozkotasunetik at dauden sorkuntza formatuak: artea, ehunak, soinuak, esperientzia sensorial eta espiritualak;
- intimitatetik, norberak hautatutako isiltasunetik eta zaintzatik sortutako erresistentziak;
- bakeak egiteko hezkuntza feminista formala eta ez-formala,
- egin-sentitu-pentsatu oinarri duten praktika feministak.

#MM26
www.mm26.org

Antolatzaileak | Organiza | Organizers



Laguntzaileak | Colaboradoras | Collaborators



Babeslea | Patrocina | Sponsors

